

AURKEZPENA

Praileaitz I haizuloa, zeinaren diziplinarteko memoria aurkezten dugun, Praileaitz mendian dago. Mendi horrek jatorrian itxura konikoa zuen eta kobazulo ugari, baina horietako asko eta asko suntsitu egin ditu bertan dagoen harrobiak (ustiapenak jardunean oraindik gaur egun), eta, egun, mendiaren periferiaren zati txiki bat baino ez da geratzen. Desagertutako leku horietako bat Praileaitz II haizuloa da, zeina “presako prozeduraren” bidez indusi zen 1988. eta 1989. urteetan. Haizulo horren leherketa ondo ikusten da ingurutik ateratako argazki batzuetan.

Praileaitz I haizuloa 1983an aurkitu zen, eta bere patua hurrean zuen aipatutakoaren bera zen. Harik eta haizuloaren jalkin arkeologikoa erabat hustu arte industeko agindua beteta, bertan dagoen legar-harrobiak irentsiko zuen.

Behere Madeleine aldiko multzokatutako zintzilario litikoen aurkikuntza garrantzitsuek, beste arte higigarri-elementu batzuek, erabilitako okrezko arkatzek, sutondoek eta abarrek adierazten zuten errituzko edo kultura-ekintzak egiten zituzten leku berezi batean geundela, baina ez zen nahikoa izan Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarentzat suntsiketarik libratzeko. Aztarnategia hustu arte segitu behar zen lanean, eta gero desagere zedila lasai asko.

Baina industeketa prozesuan sekulako aurkikuntza egin zen: hainbat laborretako margo paleolitiko, haizuloaren leku sakonenetan. Eta horrek esan nahi zuen legez haizuloa ezin zela birrindu.

Handik aurrera ekin zioten babes-dekretuak lantzeari: 50 metro gehienez galeria “ezagunetik” aurrera. Ez dira kontuan hartzen (gaur egun ere ez dira kontuan hartzen) jalkin emankorrez betetako galeriak, ez baitira oraindik indusi. Eta harrobiak jarraitzen zuen (eta jarraitzen du) aurrera.

Babesa aldi baterako 65 metrora handitu eta gero, egun 50 metrora itzuli da. Bitartean –eta bi urteko etenaldiaren ondoren–, 2012. urtetik buztinez betetako galeriak industen segitzen ditugu, non beste espazio batzuk zabaldu ez ezik, Erdi Paleolitoari dagozkion maila batzuetara iritsi garen.

Baina, atzoko eta gaurko eztabaida guztien gaineratik, gogor jardun dugu lanean 2000tik 2009ra lan-talde zabal batekin, eta ekintza horren emaitza esku artean duzun Memoria hau da, zeinak 10 urteko kanpainak barne hartzen dituen (guztira 31 hilabete eta erdi landa-lan eta milaka ordu aztertzen diziplinarteko taldearen laborategietan). Hauek dira emaitzak.

PRESENTACIÓN

El monte Praileaitz, en el que se abre la cueva de Praileaitz I de la que presentamos la memoria interdisciplinar, contaba en su origen con una forma cónica y estaba atravesado por un numeroso conjunto de cavidades, muchas de las cuales han sido destruidas a causa de la explotación del lugar por una cantera, activa aún hoy en día, y que ha dejado reducido el monte citado a tan solo una pequeña parte de su periferia. Uno de estos lugares desaparecidos es la cueva de Praileaitz II, excavada por el “procedimiento de urgencia” entre los años 1988 y 1989. Su posterior voladura quedó reflejada en varias fotografías tomadas desde las cercanías.

La suerte de la cueva de Praileaitz I, descubierta en 1983, iba a ser la misma que la de la cercana ya citada. Tras el encargo de excavarla hasta el vaciado total de su sedimento arqueológico sería engullida por la cantera de grava existente en el lugar.

Los importantes hallazgos de colgantes líticos correspondientes al Magdaleniense Inferior agrupados en conjuntos, así como otros elementos de arte mueble, lápices de ocre utilizados, hogares, etc. que apuntaban a que nos halláramos ante un lugar en el que se habrían desarrollado actividades de tipo cultural o ritual, no libraban a la cueva de su destrucción según el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Había que proseguir con los trabajos hasta vaciar el yacimiento y después dejar el camino libre a su desaparición.

Pero durante ese proceso de excavación se descubrieron en una de las zonas más profundas de la cavidad varios conjuntos de pinturas rupestres paleolíticas. Y ello significó que por ley, la cueva no podría ser destruida.

A partir de ese momento comenzó la elaboración de decretos de protección: 50 metros máximo a partir de las galerías “conocidas”. No se contabilizaban (ni se contabilizan hoy en día) las grandes galerías colmatadas con sedimentos fértiles al no haber sido aún excavadas. Y la cantera proseguía (y prosigue) avanzando.

A día de hoy, tras un temporal aumento de la protección a 65 metros, ha vuelto a los 50 metros. Mientras tanto, y tras una interrupción de dos años, seguimos excavando desde el año 2012 en las galerías colmatadas en las que además de abrir nuevos espacios hemos alcanzado niveles correspondientes al Paleolítico Medio.

Pero por encima de todas las discusiones pasadas y presentes, hemos trabajado intensamente desde el año 2000 al 2009 con un amplio equipo, y fruto de esa actividad es la presente Memoria que abarca diez años de campañas con una duración total de 31 meses y medio de trabajos de campo y miles de horas de estudios en los diferentes laboratorios del equipo interdisciplinar. Estos son los resultados.

Xabier Peñalver
Sonia San Jose
Jose Antonio Mujika-Alustiza
Editoreak-Editores